

OROIMENA ETA BIKTIMAK



Jean Michel Etchecolonea

EGOERA

Egia ezagutzea eskubide bat da. Egia bilatzeak manipulazioa ekiditen du. Erreparazioa beharrezkoa da eta horren bidez giza eskubideen urraketen biktimek jasandako kalteei neurrien bidez erantzun behar zaie. Neurri horiek alderdi material bat eta alderdi sinboliko bat izan behar dute.

Egia, justizia eta memoria printzipioen inguruan bat-egite politiko eta sozial garrantzitsu bat gertatu dela ikusi dugu, edo beste modu batera esanda, oinarrizko eskubideen urraketaren ondorioak gehien sufritu dituztenen aitortza, erreparazioa eta oroitzapen egiteko politika instituzional eta sozialak bultzatzeko beharrezko inguruko bat-egitea. Gehiengo politiko eta sozialak jada urraketa berdinen biktima izan direnei tratamendu berdina emateko beharra onartu du, testuingurua, unea edo eragile urratzailea edozein dela ere. Biktimak ez direla ez diskriminatu ez kategorizatu behar.

Zoritxarrez, gertaera berdinen aurrean, berdintasunez jokatzearen aldeko printzipio barneratu hori praktikan baldintzatu egiten da, diskriminaziorik

gabeko aitortza eta erreparazioa oztopatzen duten faktoreak sartuz. Urraketan kronologia zatitu egiten da, diktaduran, trantsizioan edo demokrazia deiturikoan gertatu diren oinarrizkat hartuta. Aitortza eta erreparazioa eragile urratzailearekin lotzen da arbitrarioki, eta hala, ETaren biktimei Estatuarenei baino eskubide gehiago ematen zaizkie. Biktima horiei babes instituzionala ematen zaie; beste batzuk, berriz, oraindik ere ezagunak izateko, gero aitortuak izateko eta ondoren erreparazioa jasotzeko borrokatzen ari dira. Biktima batzuk interes politiko batzuk goraiatzeko erabiltzen dira; beste batzuk berriz, apenas dute beraien ohorearen eta duintasunaren aitortza. Bere eskubideen urraketa argudiatzen duen edozein pertsonak egia eta justizia diskriminaziorik gabe eskuratzeko kanal instituzional bat izan behar duela uste dugu. Horiei guztiei beraien eskubideak bazterketarik gabe erabiltzen laguntzeko erabakiak gidatu behar du gobernuaren edozein jarduerara.

NEURRIAK

1 Memoria historikoari buruzko Euskal Legea bat onartzea. Egiaren prozesua alderdikieretan oinarrituta ari da diseinatzen, partxeen pilaketa kaotiko bat da, bata bestearen gainean jarritako neurrien pilaketa bat eta askotan ustez bilatzen duten helburuaren kontrakoak dira. Memoriari buruzko politikak edo esparru horretako erabaki instituzionalak ez dira plan adostu baten ondorio, ikuspegi orokor eta oso baten ondorio. Eraikin hori teilatutik eraikitzen hasita dago. Hona hemen adibide bat: Gaur egun, ez daukagu memoria historikoari buruzko euskal legerik beste neurri administratibo edo legislatibo batzuen oinarria izan daitekeenik. Ezin dugu memoria historikoari buruzko lege espainiarraren menpe egon. Egia da arlo horretan ekimen batzuk sortu direla edo aurrerapausoak ematea ekarri duten arau berriagoak ditugula, baina pauso horiek txikiak dira gertatutakoa ezagutzeko helburua lortzeari begira.

2 Egiaren Batzordea sortzeko bultzada. Memoriari buruzko legearen ondorio nagusietako bat, Egiaren Batzorde bat sortzea izan beharko luke, edozein une edo lekutan arrazoi-politiko bat medio, giza eskubideen urraketa bat jasan duela salatzen duen pertsona ororen errealitateari aurre egiteko. Hainbat mailatako ekimen sozial eta instituzionalak bateratuko dituen eta koherentzia emango dien batzorde bat. Honako urraketak argitzeko: bizitzeko eskubidearen kontrakoak (adibidez, exekuzio sumarioak edo arbitrarioak, bortxazko desagertzeak), osotasun fisikoaren kontrakoak (lesioak, tortura eta tratu txarrak aplikatzea, sexualei garrantzi berezia emanda), edo pertsonen osotasun psikikoaren, moralaren eta ohorearen kontrakoak (jazarpena, mehatxuak, atxiloketa edo espetxeratze arbitrarioa, justizia independente eta inpartziala izateko eskubidearen urraketa, eskubide politiko edo kulturalen urraketa), baita nortasun propiorako eskubidea ere (haurren lapurreten kasuak). Batzorde horrek egia osoa ezarri eta giza eskubideen urraketa ororen biktimak ezagutu eta aitortu behar ditu. Batzorde horren zeregina pertsona horiei dagozkien erreparazio-neurriak ezartzea izango da. Batzorde horrek, paraleloki, dagozkien instituzioei gertaera horiek berriz ez gertatzea bermatzeko neurri zehatzak hartzeko gomendioak egingo dizkie.

3 Zigorgabetasunaren kontrako borroka. Prozesu judizialak, ikerketari, auzipetzeari eta zigorraren ezarpenari dagokienez, salbuespenezkoak izan dira zigorgabetasun-unibertso baten barruan, eta gainera, ez dira nahikoak justizia lortzeko. «Zigorgabetasunaren hutsunea» saihesteko, beste estrategia batzuk behar dira; lege-estrategiarekin batera, zigorgabetasuna desagertuko dela ziurtatzeko strategiak. Estatuko justizia arruntaren, nazioartekoaren edo unibertsalaren aurrean justizia bilatzen duten biktimen edo biktima elkarten ekimenak bultzatzea gobernu-lehentasuna izango da.

4 Memoriaren aldeko erakundeek kontseilua sortzea. Aurreko ekimenen akatsak edo gabeziak ez errepikatzeko, memoriarekin lotutako guztia memoriaren aldeko gizarte eragileekin, biktimen elkarteekin eta arlo horretan aditu diren erakundeekin adostuta egin behar da. Mota horretako kontseilu bat sortzea izan behar du lan ildo honen bizkarrezurra, elkartegintza sustatzeko eta sendo babesteko politika bat ezartzearekin batera.

5 Egiaren eta justiziaren aldeko borrokan genero ikuspegia sartzea. Emakumeek modu espezifikoan sufritu dugu, emakume izateagatik eta horregatik gure eskubideak kontuan hartu eta espezifiki babestu behar dira. Gatazka politiko armatua gordintasun osoz existitzen zenean, emakumeek pairatutako eraso kasuetan zigorgabetasuna orokorra izan da. Horregatik, modu espezifikoan landu behar da. Ildo horretan, emakumeok, gure eskubideen alde egin dugun borrokagatik, modu berezian lagundu dezakegu, jokabide eta inspirazio praktikoa eredu gisa, gure eskubideak balioztatzen beharrezko lanean.



Memoriari buruzko politikak «berriz ez» posizioan kokatzea edo berriz ez gertatzeko bermeak. Memoriari buruzko neurriek, iraganari buruzko kontakizun edo irakurketa jakin bat inposatzeko baino gehiago, interpretazio kritiko batean oinarrituta etorkizunerako proiektatzeko balio behar dute. Bizitako tragedia berriz ez gertatzea bermatzeko neurri zehatzak ezartzeko sinergiak sortu behar dituzte. Memoriak berriz ez gertatzeko mezu argi batekin lotuta egon behar du.